

IRABAZI ITURRIAK

Bizikleta-sarea bideragarria izan dadin, irabazi iturriak beharrezkoak dira. Horretarako, prezio motak aztertzea eta sailkatzea ezinbestekoa da. Azterketa egin eta prezio moten inguruan hausnartu ondoren, pentsatu dugu gure proiektuaren prezioa finkoa dela eta bezeroen profilaren arabera finkatuko ditugula prezioak.

Gure proiektuaren prezioa, finkoa izango da, izan ere, ez da eskaintza-eskari printzipioan oinarrituta egongo. Honek esan nahi duena da, tarifa finko batzuk jarriko ditugula eta ez direla egunero aldatuko eskaintza kantitatearen arabera. Gure zerbitzuaren prezioa aldagai estatikoen arabera aurredefinituta egongo da. Egia da, prezioa alda daitekeela elektrizitate edo bizikleten prezioen arabera; gure enpresak galerarik izan ez dezan, baina betiere prezio finkoaren printzipioa mantenduz.

Bizikleten prezioari dagokionez, gure proiektua merkatu-segmentuaren eta bere ezaugarri berezien arabera izango da, hau da, bezero jakin baten profilaren arabera ezartzen den prezioa da. Hasiera batean, bazkideak izatea erabakitzen dutenek txartel digital bat izango dute eta hau, diru kopuru jakin batez kargatzeko aukera izango dute. Bizikleta zerbitzua erabiltzen duten bakoitzeko, diru jakin bat kenduko da txarteleko saldotik eta guztiz dirua gastatzen denean berriz kargatzeko beharra izango dute. Egia da, bazkideek, erabilera bakoitzeko ordaindu beharko duten diru kopurua baxuagoa izango dela, bazkide ez direnena baino. Bazkideek 80 zentimo ordaindu beharko dituzte 30 minutuko. Bazkide egiteko aldiz, urtean 50€ko tarifa ordaindu beharko da.

Bigarren hauen kasuan, bonu bat erosteko aukera izango dute digitalki, aplikazioaren bidez, ordu kopuru jakin bat eskainiko diona bazkide izateko beharrik gabe. Hau erabilgarria izan daiteke bereziki, turista edo egunerokotasunean bizikletak erabiliko ez dituztenentzat. Merkatu-segmentuaren prezioaren bidez, egunerokotasunean gure proiektua erabiltzen dutenak, bazkide izatera bultzatuko ditugu, gure diru-iturriak bermatzeko. Bonu honen prezioa orduko 5€ izango da egunean zehar, baina prezioa 2€ igoko da gaueko ordubateetatik bostetara. Hau da, ordu tarte horretan bizikleta erabiltzeko kostua orduko 7€ izango da. Prezioa igotzeko arrazoia jendea gauetan gehiago ordaintzeko prest egongo dela da, izan ere, garraio zerbitzu gutxiago izaten dira ordu hauetan, eta hauen prezioa egunean zehar baino altuagoa izaten da. Beraz, gauetan prezioa igotzea aukera ona da diru sarrerak handiagoak izateko.

Bestalde, bizikleten erabiltzaileek zenbait oinarrizko betebeharrak izango dituzte. Esaterako, ordainketak garaiz egitea, zehaztutako mugak errespetatuz, eta bizikletak egoki erabiltzea, behar bezala tratatuz, erabilera desegoki eta bortizkeriarik gabe. Aipatutako arauak haustekotan, dirutan ordainduko den multa bat jasoko du arau haustea egiten duenak. Arau hauste hauek larritasun mailaren arabera 3 multzotan banatuko dira: arinak, garrantzia gutxiago arau hausteak; larriak, larritasun maila handiagoa hartzen duten arau hausteak, eta oso larriak, larritasun maila oso handiko arau hausteak.

Beraz, gure prezioa finkoa izango da; soilik aldagarria izango da gure errekursoetan aldaketaren bat egoten bada, gure enpresak diru galerak izan ez ditzan. Gainera, urtean diru kantitate bat ordainduz bazkide egiteko aukera egongo da eta hauek prezioaren murrizketa esanguratsu bat izango dute gure produktuaren erabilera bakoitzean. Eta azkenik, gure espresak ezarritako arauak hautsi ezkerro larritasun mailaren arabera multak ordaindu beharko dira.